

FITXA: 232 - BIZKAIA - Bizkaiko Lurralde Historikoko udaletan landa-bideak hobetzeko jarduerak egiteko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Foru-dekretu honetan aurreikusitako dirulaguntzak eskuratu ahal izango dituzte Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek, baldin eta kategoria jakin batzuetan sartuta badaude, egindako landa-ingurunearen karakterizazioaren arabera (https://www.euskadi.eus/euskadiko-landa-eremuen-karakterizazioa/web01-a2lanits/eu/) Landa Ingurunearen Garapenari buruzko ekainaren 30eko 7/2022 Legean eta 2023-2027 NPEPE-a ezartzeko 66/2024 Dekretuan oinarrituta, eta foru-dekretu honen eranskin bakarrean zerrendatzen badira. «Landa-habitat sakabanatua duten udalerrien» kasuan, 450 biztanle kilometro koadroko baino biztanle-dentsitate txikiagoa izan beharko dute.	
Deialdia: BAO - Bizkaiko Aldizkari Ofiziala	Deialdiaren data: 2026/05/04
Sarbide-esteka: https://www.bizkaia.eus/eu/udalnet	
Erreferentziazko araudia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 42/2026 FORU DEKRETUA, apirilaren 23koa. - https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2026/05/04/I-507_eus.pdf	
Eragin eremuak: Udal azpiegiturak	
Zenbatekoa: 5.040.000,00 €	
Aurkezteko lehen eguna: 2026/05/05	Aurkezteko azken eguna: 2026/07/30
Aurrerakina: Ez da zehaztu	Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu
Gehieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.	Gutxieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.
Tramitazioa: Lehia askekoa.	

Laburpena

Onartu egin dira Natura Ingurune eta Nekazaritza Sailak Bizkaiko Lurralde Historikoko udaletan landa-bideak hobetzeko jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko 2026ko deialdia eta laguntzen oinarri arautzaileak, bai eta eranskina ere.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz lagundu ahal izango dira titulartasun publikoko landa-bideak konpontzeko jarduketak, bai eta udal-inbentarioan edo erabilera publikoko inbentarioan sartuta daudenak ere, baldin eta lehentasunez landa-guneetara edota nekazaritza-ustiategietara sartzeko aukera ematen badute.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

- a) Obra-proiektua idazteko eta egin beharreko obren zuzendaritzarako eta segurtasunerako laguntza teknikoa emateko kontratazioak eragindako gastuak.
- b) Obra-proiektua gauzatzeko kontratazioak eragindako gastuak.
- c) Hirugarrenekin sortutako gastuak, foru dekretu honen xedea lortzeko beharrezkoak direnak.

Diruz lagundu daitezkeen gastuek kontratazio publikoaren araudi aplikagarrian ezarritakoa errespetatu beharko dute.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagundutako jarduketak osorik gauzatu beharko dira 2027ko ekainaren 30a baino lehen